



ORTUZAR U. G. A.



## UBIDEK ETA ZEANURIK BAZKA-LARREEN INGURUKO BAKEA BERRETSIKO DUTE

**Bilera horren inguruan, *Zeanuri-Ubide. Larreen Mankomunitatearen X. Zeharkaldia* antolatu da urriaren 29rako**

Urriaren 29an, larunbatean, duela mende bat baino gehiagotik urtero errepikatzen dutenez, Zeanuriko eta Ubideko Udalek larreen mankomunitateko kontuen kitapena egingo dute eta bakea berretsiko dute. Bilera hau aprobetxatuz *Zeanuri-Ubide. Larreen Mankomunitatearen X. Zeharkaldia* burutuko da. Gainera, zeharkaldi hau Bizkaiko Forua Aldundiak bultzatutako *Ondarearen Europako Jardunaldien (Etxetik kanpo*



*Ubideko eta Zeanuriko udalbatzen bilera, Ubiden*

izenburua daramate aurten) egitarauan barne sartu da ibilbideak Erdi Aroan Bilbo eta Gasteiz lotzen zituen errege bidea jarraitzen baitu, eta bidarri horretatik igarotzen ziren Bizkaiko itsasportuetara eta Gaztelako barnealdera zihozaen pertsonak eta merkantziak.

Ehun urtetik gora daramatzate Ubideko eta Zeanuriko Udalek urtean behin elkartzen, urte batean udaletxe batean eta hurrengoan bestean, —hasieran bide erdian, Barazarko mendatean biltzen ziren— udalerrri bakoitzean izena emandako abelburuen zenbakiak aurkezteko eta kontuak egiteko. Jarraian, batzar agiria sinatu eta bi udaletako zinegotziek batera bazkaltzen dute. Urtero errepikatzen den ohitura eta betebeharra da. Dirudienez, batzar horren zergatia, bazka-larreen aprobetxamenduaren inguruan udalerrri biek mendeetan zehar —gutxienez XVI. mendetik— izan dituzten gorabeheri eta istiluei amaiera emateko adostutako akordioan aurkitzen da.

### **Erdi Aroko galtzadan zehar**

Bi udalen bilera hori aprobetxatuz, duela bederatzi urtetik, Zeanuriko Ipizki eta Joko Alai, eta Ubideko Amexier eta Ortuzar elkarteek Zeanuritik Ubidera doan zeharkaldia antolatzen dute, Gasteiz eta Bilbo lotzen zituen Erdi Aroko galtzada jarraituz.



*Ubideko herrigunean galtzadaren tarte txiki bat kontserbatzen da*

Oinezko martxa honekin hiru helburu nagusi finkatu dituzte antolatzaileek: alde batetik, Zeanuriko eta Ubideko Udalek larreen mankomunitatearen inguruan urtero egiten duten bilera historikoa ezagutzera ematea eta balioestea; bestetik, zeanuriztarrei zein ubidarrei zein bisitariei bi udalerrietako ingurumariak —eta bereziki Ubidetik eta Zeanuritik igaroz Gasteiz eta Bilbo lotzen zituen Erdi Aroko galtzada— ezagutzera ematea; eta azkenik, Zeanuriko eta Ubideko herritarren arteko harremanak sendotzea.

Zeharkaldiaren irteera Zeanuriko plazan, udaletxearen aurrean, izango da goizeko 10:00etan. Plazatik abiatuz, Undurragako urtegiaren ertzetik jarraituko dute Ipiñabururantz; hemendik Saldropora igo beharko dute; igoera horretan, Txareta izeneko parajea, arbelgune bat azalduko zaie, eta mendeetan zehar gurdiek utzitako gurgil-markak ikusi



ahal izango dituzte bertan. Jadanik Saldropoko zelaikadan, Lapursasitik Otzarretako pagadiaren ondotik igaro eta Ubiderantz joko dute; azken txanpa honetan galtzadaren aztarnak argi eta garbi azaltzen diren tarte batetik ibiltzeko aukera izango dute ibiltariek, Ubideko plazara iritsi baino lehen.

*Agiria sinatu ondoren, bi udaletako zinegotziek batera bazkaltzen dute. Aurten Ubideko udalari dagokio bazkaria ordaintzea, datorren urtean Zeanurikoari*

Zeharkaldia burutzerakoan, 12 bat kilometro izango dituzte oinetan ibiltariek, baina ziur zitari erantzutea mereziko duela, Ubide eta Zeanuri lotzen zituen galtzada eta bere inguruan azaltzen den ondare naturala eta historiko-etnografikoa ezagutzeaz gain, udazkenean naturak azaltzen duen koloreen sinfoniaz gozatzeko aukera izango baitute, Gorbeiaiko tontorraren nagusitasuna nabarmentzen den parajeetan zehar.

*Zeanuri-Ubide Larreen Mankomunitatearen X. Zeharkaldiari amaiera emateko* 13:00etan, Ubideko eta Zeanuriko zinegotziek batzarra egingo dute Ubideko udaletxean; bilera horretan idazkariak udalerrri bakoitzean izena eman duten abelburuen zenbakiak azalduko dituzte, eta amaieran batzarkideek bilera-agiria sinatuko dute, denak batera bazkaltzera joan aurretik, ubidarren kontura. Datorren urtean gauza bera egingo da, baina Zeanuriko udaletxean, eta bazkaria ordaintzea ere zeanuriztarrei egokituko zaie.

### **IBILALDIARI BURUZKO XEHETASUNAK**

- \* Eguna: Urriaren 29a, larunbata.
- \* Izena ematea: Zeanuriko plazan, doan.
- \* Autobus zerbitzua (doan): \* 09:00etan: Ubideko plazatik Zeanurira, ubidarrak edota Ubiden kotxea uzten dutenak Zeanuriko abiapuntura eramateko. 2 €  
\* 13:15ean: Ubidetik Zeanurira, zeanuriztarrak edota Zeanurin kotxea utzi dutenak eramateko. 2 €
- \* Irteera: 10:00etan, Zeanuriko plazan.
- \* Ibilbidea: 12 kilometro inguru. Bi ordu eta erdi inguruko iraupena, martxa lasaian.
- \* 13:00etan: Ubideko eta Zeanuriko Udalbatzen bilera Ubideko Udaletxean 2016ko bazka-larreen mankomunitatearen kontuak egiteko eta bilera agiria sinatzeko.
- \* Antolatzaileak: Taldea, Joko Alai Elkarte, Amexier Mendi Elkarte eta Ortuzar Ubideko Gazte Asanblada.
- \* Laguntzaileak: Zeanuriko Udala, Ubideko Udala, Gorbeialde Landa Garapenerako Elkarte, Arratiako Gurutze Gorria eta BBK.

### **INFORMAZIO GEHIAGO BEHAR BADUZUE, DEITU:**

**JOXAN PAGOLA (Ubideko alkatea): 615791607 / EUSEBIO LARRAZABAL (Zeanuriko alkatea): 635710723 / ANTOLATZAILEAK: 653016117**